Orkestren kudeaketari buruzko sinposio espezializatuak antolatzen ditu, elkarlanean jarduten du herrialdeko hainbat musika-talde eta antzokirekin (Teatro Real, Teatro de la Maestranza, Gran Teatro del Liceu, Orquesta Sinfónica de Madrid eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, besteak beste), eta bikaintasuna aitortzen du honako sari hauen bidez: Premio de Composición Asociación Española de Orquestas Sinfónicas-Fundación BBVA eta BBVA Fundazioa Fronteras del Conocimiento Saria Musika Garaikidean.

Fundación **BBVA**

## Interpreteak

### Ensemble Court-Circuit

Anne Cartel, flauta  
Hélène Devilleneuve, oboea  
Pierre Dutrieu, klarineta  
Géraldine Dutroncy, pianoa  
Alexandra Greffin Klein, biolina  
Laurent Camatte, biola  
Alexis Descharmes, biolontxelo

**Jean Deroyer**, zuzendaria

## Egitaraua

### LEHEN ZATIA

**Gabriel Erkoreka** (1969)  
*Kaiolan*

**Philippe Hurel** (1955)  
*Trait d'union*

**Javier Quislant** (1984)  
*Nun\**

### BIGARREN ZATIA

**Alberto Posadas** (1967)  
*Nebmaat*

**Bertrand Dubedout** (1958)  
*Zazpiak Z*

\*Erabateko estreinaldia, BBVA Fundazioaren enkargua

## Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

## Zirkuitu frantziar-espainiarrak

BBVA fundazioaren Musika Garaikidearen Kontzertu Ziklo honek jardunean daramatzen urteetan askotan gonbidatuak izan dira Frantziako taldeak, eta mugaren bi aldeetako egileen musikaz osatutako kontzertuak eskaini dituzte. Ensemble Court-Circuit taldearekin dugun hitzordu honek ere bat egiten du eskaintza horrekin, Espainiako hiru egileren eta Frantziako biren musikaz osatutako emanaldia eskainiko baitu. Gainera, euskal ikuspegitik nabarmenduko da alde bikotasun hori: egitarauan jasotako konpositoreetatik hiru Euskal Herrian, Pirinioen bi aldeetan, jaiok dira.

### Gabriel Erkoreka

#### *Kaiolan*

Gabriel Erkorekak ganbera-musikarako duen katalogoaren barruan seguruenera arrakasta handien izan duen lanetako batek emango dio hasiera kontzertuari. Izan ere, konpositore bilbotarrak nazioarteko hainbat talderen eskutik entzun ahal izan du lan hori. Horien artean, Frantziako L'Instant Donné edo Alemaniako ensemble recherche taldeak nabarmendu ditzakegu, besteak beste. Azken horiek, gainera, lanaren erreferentziatzako erregistro bat ere eskaini dute, 2014aren amaieran, Versok

BBVA Fundazioaren laguntzarekin argitaratutakoa. Emanaldi honetan, beraz, *Kaiolan* lanaren beste bertsio batez gonatzuko gara talde berri baten eskutik.

Erkorekak *Kaiolan* lanarekin, Louise Bourgeois eskulturagilea omendu du. Haren izenburuak zalantzarik gabeko erreferentzia egiten die artista frantziar-amerikar ospetsuak 80ko hamarkadatik aurrera *Cells* izenburuarekin egin zituen bi instalazio-serieri. Eragin psikologiko harrigarriko gela eskultoriko horiek «*voyeuraren* plazerraz, eta begiratzearen eta begiratua izatearen zirraraz dihardute». Konpositore bilbotarrak ez zuen alderdi hori ahaztu bere obraren estreinaldirako idatzi zuen oharrean; izan ere, honela definitu zituen gela horiek: «Sorkuntza zirraragarriak dira; horietan, artista-ren barne-mundura sartzen gara, eta haren intimitatearen behatzaile pribilegiatu bilakatzen gara».

*Kaiolan* obrari helduta, autoreak dioenez, horietan «aske izateko hainbat modu bilatzen saiatzen da espazio itxi batean, segurtasun-sentsazio faltsu bat sortuta. Askatasun desiratuak eztanda egiten du espazioaren handitze bat-batekoan (instrumentuen mugako erregistroak), baina, segituan, bere burua mugatzen du



berriro, ezinbestean». Horren adierazgarri argia da sestetoaren materialen keinuzko bilakabidea: esate baterako, erregistro estu baten eboluzio geldia — Giacinto Scelsiren instrumentazio-estrategia batzuen oroitza pen urruna ekar dezakeena — partituraren hasieran; haren muturreko erregistroetako pianoaren tremoloetan sartutako *ostinati*en pilaketa etengabea atal nagusia baino lehentxeago; edota jada erregistro osoa hartzen duen piano-rubato baten ezinbesteko bilakabidea lanaren azken atalean, zeinetatik gainerako interpretatzaileen keinuek ihes egin nahi duten, baina ez dute lortzen bere inguruan biltzen dituen instrumentuarekiko emantzipazioa. Materialari buruzko ohar horiek eta prozesu formaletako batzuen hertsatzeek, hortaz, agerian jartzen dute *Kaiolan* izenburuak ez diola soilik erreferentzia egiten «espazioaren mugaketa estugarri bati, baizik eta horrek eragiten duenari ere bai: espazio hori betetzean gertatutako estutasun- eta klaustrofo-bia-sentipenari».

*Kaiolan* obra konposatu zen urteko azaroan estreinatzen zen, PluralEnsemble taldearen eskutik, Fabián Paniselloren zuzendaritzapean, Bartzelonako L'Auditorin — INAEMek enkargatu zuen —.

## Philippe Hurel

### *Trait d'union*

Philippe Hurel konpositorearen musika Ensemble Court-Circuit taldearen balio seguruenetako bat da, eta, batez ere, taldearen kontzertuetan errazen aurkituko dugun balioetako bat. Ez alferrik, konpositore frantziarrak, Pierre-André Valade orkestra-zuzendariarekin batera, sortu zuen taldea, 1991n. Taldearen webgunean, gainera, sorreratik 2007ra arte Hurelen hamabost bat lan estreinatu edo interpretatu dituztela ikus dezakegu.

*Trait d'union* izeneko errepertoria gehitutako lanetako bat da, aurretik adierazitako urtearen ondorengoa bada ere. 2013an idatzi zuen obra hori, eta *D'un Trait-Trentemps (qui passe)* izenburuko biolontxelorako — Hurelen gaztaroko instrumenturako, alegia — aurretiko piezaren nolabaiteko luzapena da. Bi partitura horiek 2015ean Parisko ManiFeste jaialdiko kontzertu batean interpretatu zituzten, alegia, Ircamek antolatutako sorkari berrien urteko hitzorduan, zeina, nolabait, gaur gaueko Bilbokoarekin ahaidetu dagoen, orduko ekitaldi hartan Ensemble Court-Circuit taldeak gaurko emanaldiko konpositoreetako batek eginiko obra baten erabateko estreinaldia ere egin baitzuen: Alberto Posadasen *Tres pinturas imaginarias*. Kontzertu hartarako, Hurelek lerro labur

batzuk ere idatzi zituen *Trait d'union* lanaren inguruan. Hona hemen pasarte bat: «Marratxo edo lotura hau [*trait d'union* esapiderearen itzulpena] [...] bi protagonistek [biolina eta biolontxeloa] partekatzen duten figura homorritmikoan entzun daiteke desfase-uneen ostean, edota baita bi instrumentisten artean banatutako begizta batean ere, zeinak diskurtsoaren garapena oztopatzen duen... Azken batez, lotura/marratxoa harien tinbrea da, bi instrumentuek azkenean bakarra balira bezalako soinua egin dezaten tratatua». Pasarte labur horretan Hurelen zeregin sortzaileko funtsezko bi alderdi, ia obsesiboak, azaleratzen dira. Batetik, prozesualaren eta ez-prozesualaren arteko orekaren inguruko kezka erakusten du, *Loops* zikloa amaitu zuenetik beti izan duena. Bestetik, bat-egite tinbrikoaren nabarmenak gogora dakarkigu «bigarren belaunaldi espektrala» esan ohi zaionaren ordezkari agerikoenetako baten aurrean gaudela (ordezkaritza hori Marc-André Dalbavie eta Kaija Saariaho konpositoreekin partekatzen du).

*Trait d'union* obra jendaurrean La Graven irakurri zuten lehen aldiz, Messiaen au Pays de la Meije jaialdian, 2013ko abuztuaren 1ean. Hae-Sun Kang eta Ophélie Gaillard arduratu ziren zeregin horretaz.

## Javier Quislant

### *Nun*

Javier Quislant Europako musika-eszenako etorkizun oparoenetako bat duen ahots gazteetako bat da. Bilbon jaio zen, eta, konpositore gisa, Barzelonan eta, gero, Grazen jaso zuen prestakuntza. Grazen, itzal handiko Musikförderungspreis der Stadt saria eskuratu berri du, bere karrerari bultzada handia emango diona. Grazen, gainera, aurtengo udaberrian, haren lehen lan eszenikoa estreinatuko da: *Mirada antigua*. Hori horrela, nabarmendu beharra dago proiektu hori prestatzeak nolabaiteko eragina izan duela Quislant iaztik konposatzen ari den hainbat lanen sorkuntzan. Horien artean honako hauek nabarmendu behar ditugu: *lanua inferni*, flauta, errezi-tatzaile eta elektronikarako — Wien Modern jaialdi ospetsuaren azken ekitaldian aurkeztua —, *echoing sinuosity* izenburuko haren kuarteto mistoa — Klangforum Wien ganbera-orkestrako solistentzat sortua — eta gaur Ensemble Court-Circuit taldearen eskutik eta erabateko estreinaldi gisa entzun ahal izango dugun lana.

Helmut Lachenmann konpositorearen flauta, tronboi, gizezkoen ahots-talde eta orkestrarako lanaren izenburu bera duen arren, *Nun* obran ez dago zuzeneko ahaidetasun edo zor estetikorik konpositore alemaniarraren unibertso

musikalarekin. Beste konpositore edo korronte musikalekin egon litezkeen hurbiltasun edo desberdintasun musikalak alde batera utzita, kinteto misto honen *poiesisan* dagoen literatur iturri bat nabarmentzea merezi du. Quisilantek, partituraren aurretik idatzitako oharretan, José Ángel Valente idazlearen *Tres lecciones de tinieblas* lanaren pasarte bat jaso du. Idazle horrek eragin nabarmena izan du Beat Furrer haren Austriako maisuaren musikan ere, *Fragmentos de un libro futuro* edo *Lotófagos* piezetan igar daitekeen bezala. Hauxe da Quisilantek hautatutako Ourenseko olerkariaren pasartea:

«Jarrai dezazun: jarrai dezazun, eta betikotu zaitezen: formak forma sor dezazun: espezieak ugaritu daitezun: orria jaio eta hil dadin, berriz jaio dadin eta orriaren irudia ikus dezazun: denboren hondakinak elkarrekin betikotasuna izan daitezun: begitartea begitarte bihur dadin: begirada, begirada: eskua, aitorpen azkenik: oi! Jerusalem».

*Nun* obran material-testuren bi tipologia txandakatzen dira, zeinek, diferentzia estetiko eta kontzeptual handiak gorabehera, Pierre Boulezek 60ko urteetan adierazi zituen *temps lisse* eta *temps strié* nozioekin nolabaiteko lotura duten. Zehazki, Quisilantek kontrajartzen ditu pasarte mantso batzuk, denborazkotasun geldiarazia dutenak, non askotariko teknika luzatuen erabi-

lera nagusitzen den — konpositoreak «azaleratzen diren soinu-ikuspegi berriak» esaten die horiei — eta jarduera erritmiko eta koadratura metriko handiagoko beste pasarte batzuk, non soinu biribilago eta taxu dinamiko handiagoko batek keinu kontrapuntistiko landuak lotzen dituen, eta, azkenean, horien ezinbesteko metaketa erabateko homofonia bilakatzen den. Gainera, testuren txandakatze hori denboran polarizaturik dago; era horretan, pasarte geldiaraziek pixkanaka amore ematen diote bulkada zinetiko handiagokoei, eta klimax nabarmen batean amaitzen dira. Azkenik, klimax horren ostean, koda baten moduan, meditazio-espazio bat zabaltzen da. Autoreak berak hau adierazi du: «Lanak material “ezaguna” beste norabide baterantz desbideratzen du; norabide-konnotazio bat gibelatzen du, eta aldatzen diren hainbat soinu-espaziotan proiektatzen, baina, erdibidean, dimentsio sonanbulu edo denbora-elipsi batean geldituta, non irudi lauso batek, guztiz adierazi gabe, ezagut daitezkeen soinu nagusiko ideia bat iradokitzen duen. Nortasun baten gauzatzea da, aurkakoaren bilaketaren bidez».

## Alberto Posadas *Nebmaat*

Alberto Posadas Valladolideko konpositorearen iruditerian ageri diren

musikaz kanpoko askotariko erreferentzien barruan toki nabarmena du, ez bairik gabe, Antzinako Egiptoren inguruko lilurak. Lilura hori, azken hamarkadetan, Gérard Grisey konpositore frantsesak ere sentitu zuenarekin baino ezin da alderatu agian, zeinaren eraginez, besteak beste, honako lan hauek konposatu zituen: *Jour, Contre-jour, Anubis-Nout* edo *Quatre chants pour franchir le seuil* obraren mugimenduetako bat. Posadasen kasuan, orain arte Egipton oinarritutako formatu handieneko obra saxofoi baxu eta orkestrarako *Resplandor* (*poema lírico dedicado a Atón*) kontzertua da —azpтитulua Giacinto Scelsiren biolinerako kontzertuari nahita eginiko keina da—. Obra hori, duela lau hilabete eskas, Bilboko Campos Elíseos Antzokian entzun ahal izan zen, Musikagileak Euskal Herriko Musikagileen Elkartearen ekimenari esker. Egiptoko mitologia- eta hileta-unibertsoaren eragina nabariagoa da haren ganbera-lanetan. Hori horrela, haren katalogoan honako hauek daude: *Seth*, biolin eta biolako duoa; *Snefru*, akordeoi eta elektronikarako obra; *Pri em hru* ensemblerako pieza, non flautak atal nagusian rol ia bakarlaria betetzen duen, eta gaur entzungo dugun *Nebmaat* kinteto mistoa.

Azken hiru lan horiek Egiptoko piramideen ezaugarri geometriko jakin batzuetan oinarritzen dira; hala, Posadas, piramideak datu-gordailu bat izango

balira bezala, datu horietan oinarritu zen musika-formalizazioko prozesu jakin batzuk sortzeko. Zehazki, *Nebmaat* lana, Snefru faraoiaren, hau da, Keopsen aitaren, piramide ukondotu ospetsuaren kanpoko forman zein barmeko pasabideen banaketan oinarritzen da. Mastaba eta piramide mailakatuetatik aurpegi lauko piramideetarantz eginiko lehen trantsizio-saioteko bat dela diote, eta saio horren zailtasun teknikoek egiptologo frantsesek «erronboide formako» deritzoten silueta eragin zuten. Horrela bada, bertan lehen piramide moztu bat gainjarrita dago oinarri gisa, eta, horren gainean, piramide oso eta txikiago bat, baina malda apalagokoa, eraiki zen. Barruko pasabideen banaketa eta irteeren orientazioa ere apartak dira antzeko beste mausoleo batzuen aldean.

Ikuspegi teknikitik, Posadasek piramide ukondotutik ateratako balio kuantitatiboak manipulatzeko modua Francisco Guerrero bere maisuarengandik jaso zuen musikaren formalizazio fraktalean sustraiturik dago nolabait. Horrek ez dakar, ordea, entzuleak egitura tekniko horiek buruan birsortzeko ahalmena izatea. Beharbada, azpiegitura hori gogora dakarren momentu bakarra zurezko bi haize-instrumentuen arteko azentu-desfaseetan dago, obraren bigarren erditik aurrera, hileta-eraikinen barruko pasabideen arteko neurri-diferentzien adierazgarri

baitira. *Nebmaat* obrak hainbat parrartetan giro geldiarazi bat, ordea, lortzen du, iluna, ia beltza, harien erabilera sotilari zein haizeetan multifonikoak leunki erabiltzeari esker. Hori, entzulearentzat, piramideko pasabide ilunetan barrena noraezean, galdu-gordean, ibiltzearen antzerako zerbait izan liteke. Goibel denaren inguruko atsegin hori da Posadasen katalogo osoan gehien dirauen aztarna metaforikoa.

*Nebmaat* Bruselako ARS Musica jaialdiaren 2004ko edizioan jo zuten lehen aldiz. Hamar urte geroago, eta ensemble rechercheren eskariz, Posadasek lanaren beste bertsio bat idatzi zuen, eta oboea sartu zuen saxofoiaren ordean. Haren jendaurreko lehen entzunaldia Estrasburgoko Musika jaialdian izan zen, 2016ko urriaren 5ean, non Gaztelako konpositorea izan zen gonbidatu nagusia Alsaziako jaialdi horretan. Azken bertsio hori da gaurko kontzerturako programaturakoa.

## **Bertrand Dubedout** *Zazpiak Z*

Musikaren bidez Pirinioen bi aldeetan nolabait zubiak ezartzen dituen konpositore baten obrarekin amaituko da kontzertua. Bertrand Dubedout Baionan jaioa da, eta euskarara jo du hainbatetan bere katalogoaren obra askori izenburua jartzeko, *Zazpiak* hi-

tzaren babesean. Jakina da *Zazpiak bat* goiburuak erreferentzia egiten diola elementu historikoak eta kulturalak partekatzen dituzten Euskal Herriko zazpi lurraldeen batasun politikorako nahiari. Kontzeptu hori Maurice Ravelek ere izan zuen gogoan proiektu handi bat egiteko bere euskal sustraien omenez — printzipioz, piano eta orkestrarako —, baina ez zen inoiz burutzerara iritsi.

Dubedouten lau obrak dute gaur egun *Zazpiak* hitza. Haien lau azpitoluak ikusita, nortasunaren erreferentzia aski agerikoa da: *Zazpiak A* (Araba), zeinak izaera akusmatikoa duen; *Zazpiak B* (Bizkaia), marinbarako; *Zazpiak N* (bi Nafarroetako bat edo biak), piano eta instrumentu-talderako, agian alegiazko elkarrizketa bat azkenean bertan behera gelditutako Ravelen proiektuarekin; eta, azkenik, *Zazpiak Z* (Zuberoa), kintetorako, gaurko emanaldian programaturakoa. Horrenbestez, egiteko daude oraindik —konpositorearen webgunea behar bezala eguneratuta badago— Gipuzkoa eta Lapurdiri eskainitako omenaldiak Euskal Herriaren inguruko ziklo hau osatzeko.

Ensemble Court-Circuit taldearen egin berriko erregistro diskografiko baten oharretan (Dubedout eta Hurelen hainbat lan jasotzen ditu), konpositore baionarrak *txalapartaren* eragin berezia onartzen du *Zazpiak Z* lanaren konposizioan. Zehazki, Dubedoutek

azpimarratzen du bere asmoek nola nabarmentzen duten «une musikal bakoitzak *txalapartaren* teknikaren lau ezaugarrien eragina izatea». Nolanahi ere, konpositoreak hautatutako instrumentu multzoaren barruan perkusiorik ez dagoenez, transferentzia hori zeharkakoa da, nahiko sotila. Autorearen arabera betiere, «tipologien estrapolazioa erritmikoak bakarrik ez diren noranzkoetan garatzen da, eta hor soinu-egikeraren, keinu instrumentalaren, beste alderdi guztiek eragin dezakete». Azkenik, Dubedoutek liburuxka diskografikoan aitortzen du *Zazpiak Z* lanaren hasieran beste musika batzuei eginiko keinua ere badagoela, orduan, era implizitu batez, gogorarazten saiatzen baita Franz Liszt hungariarraren *Les jeux d'eaux à la Villa d'Este* eta Gérard Grisey konpositorearen *Vortex Temporum* lanak.

*Zazpiak Z* obra Ensemble Court-Circuit taldeak 2016ko azaroaren 16an estreinatu zuen Saint-Pierre des Cuisines Auditoriumean, Toulousen. Lan hori Philippe Hureli eskainia da.

**José Luis Besada**

## Jean Deroyer



Jean Deroyer zuzendari frantsesa 1979an jaio zen. Hamabost urte zitueanean, ikasketak hasi zituen Parisko Goi Mailako Musika eta Dantza Kontserbatorio Nazionalean, eta bost lehen sari erdietsi zituen han.

Hainbat orkestra zuzentzeko gonbidatu dute, honako hauek, besteak beste: Tokioko NHK Symphony Orchestra, Radio-Symphonieorchester Wien, SWR Sinfonieorchester Baden-Baden, Radio-Sinfonieorchester Stuttgart, Deutsches Symphonie-Orchester Berlin, Sinfonia Varsovia, Orchestre Philharmonique du Luxembourg, Orchestre Philharmonique de Monte-Carlo, Orchestre de Paris, Orchestre National de France, Orchestre Philharmonique de Radio France, Orchestre National de Lille, Orchestre National de Lyon, Ensemble Intercontemporain eta Klangforum Wien. Orkestra horiek hamaika aretotan zuzendu ditu, honako hauetan, esate baterako: Vienako Konzerthaus, Berlingo Philharmonie, Parisko Salle Pleyel, Luzernako KKL, Tokioko Hiriko Opera eta New Yorkeko Lincoln Center. Urteetan zehar harreman estua eta pribilegiatua eraiki du Ensemble Intercontemporain taldearekin, eta haren zuzendari izan da sarri.

Stockhausen konpositorearen *Gruppen* hiru orkestrarako obra zuzendu zuen Luzernako 2007ko Jaialdian, Pierre Boulez eta Peter Eötvös konpositoreekin batera. 2007ko irailean, debuta egin zuen Parisko Orkestrarekin, eta hurrengo denboraldietan ere lan egin zuen harekin. Gainera, CD ugari grabatu ditu Radio Franceren Orkestra Filarmonikoarekin, Monte-Carloko Orkestra Filarmonikoarekin eta Île-de-Franceko Orkestra Nazionalarekin batera, EMI Music, Naïve Records eta Radio France diskoetxeetarako, besteak beste.

2010ean, Georges Aperghis konpositorearen *Les Boulingrin* operaren estreinaldia zuzendu zuen Klangforum Wien orkestrako buru gisa, Jérôme Deschampsen eszenaratzearekin, Parisko Opera Nazionalean. Geroago, Debussyren *Pelléas et Mélisande* zuzendu zuen Rouengo Operan, eta Radio Franceren Orkestra Filarmonikoarekin Paul Dukasen *Ariane et Barbe-Bleue* operan. 2012an, Philippe Fénelon konpositorearen *JJR* lanaren estreinaldia eskaini zuen Genevako Grand Théâtre antzokian, Robert Carsen zela eszenazuzendari. Duela gutxi, Michael Jarrell konpositorearen *Cassandra* lana zuzendu du Avignongo Jaialdian Fanny Ardant aktorearekin batera, baita Philippe

Boesmans konpositorearen *Reigen* lana ere Parisko Opera Nazionalean.

Datozen konpromiso aipagarrien artean daude orkestra hauekin egingo dituen kontzertuak: Londresko BBC Symphony Orchestra, Monte-Carloko Orchestre Philharmonique, Parisko Opera Nazionalea, Ensemble Modern, Auckland Philharmonia Orchestra eta Dublingo RTE National Symphony Orchestra.



## Ensemble Court-Circuit



Philippe Hurel konpositoreak eta Pierre-André Valade zuzendariak Ensemble Court-Circuit taldea 1991n sortu zuten, Genevako Analix Gale-riaren sortzaileekin batzartu ostean. Court-Circuit, «konpositore batek konpositoreentzat egina», sorreratik, esperimentaziorako toki bat izan da, erabateko askatasuneko espiritu batez arriskuak hartzea sustatzen duen proiektu artistiko bat. Musika garaikidearekiko konpromiso sendoa da taldearen oinarria, eta nortasun urduri, erritmiko eta zorrotz hori —taldearen izenak iradokitzen duen bezala— musikariengandik eta haren buru Jean Deroyer zuzendariarengandik datorkio, bizitasunez hornitzen baitute, erabakitazunez eta birtuosismoz. Konpositoreen kide arretatsu gisa, ensembleak suharki betetzen du hartu duen rola, hau da, nazioarteko eszena garaikidea sustatzeko rola.

Nazioarteko programazio dinamikoenetara gonbidatu dute: Berlingo MaerzMusik, Osloko Ultima, Monte-Carloko Printemps des Arts, Wroctaweko Musica Electronica Nova, Parmako Traiettorie, Vilniuseko Gaidā, bai eta Frantziako sorkuntzaren eta hedapenaren arloko foro nagusienetara ere: Ircamen Agora eta ManiFeste,

Tolosako Novelum Jaialdia, Perpinyàko Aujourd'hui Musiques, Messiaen au Pays de la Meije, Reimseko Opera, Metzeko Arsenal, Caen eta Besançongo antzokiak eta Parisko Opera Nazionala.

Ensemble Court-Circuit taldeak musika garaikidearen esparrua gaintzen duten diziplinarteko proiektuetan ere esku hartzen du. Parisko Opera Nazionalarekin Preljocaj eta Langraaren koreografia-sorkarietan lan egin ondoren, taldeak harreman emankorra hasi zuen Parisko Théâtre des Bouffes du Nord antzokiarekin, eta bi ganbera-opera estreinatu zituen han: *The Second Woman* (2011ko Kritikaren Saria) eta *Mimi* (2014). Frédéric Verrièresek konposatu zituen biak, eta Guillaume Vincentek eszenaratu zituen. Horren ostean, elkarlanean hasi zen Parisko Opera Komikoarekin, eta *La Princesse légère* (2017) Violeta Cruzek konposatutako operaren antzezpenean parte hartu zuen, Jos Houben zuzendari zela. Horrekin batera, ensembleak hainbat zinematografia-kontzertu estreinatu ditu, hala nola *Paris qui dort* (René Clairek zuzendutako filma, eta Yan Mareszek musikatua) eta *Les Hommes le dimanche* (Robert Siodmakek zuzendua, eta Alexandros Markeasek musikatua).

Zeregin pedagogikoa osatzen du, orobat, Parisko Goi Mailako Musika eta Dantza Kontserbatorioarekin aldianaldian lan eginez, baita Île-de-France eskualdeko beste kontserbatorio batzuetan ere. 2012an Hauts-de-Seinera aldatu zen taldea, eta han proiektu ugari egiten ditu musika-erakunde zein Frantziako banaketa-egiturekin. Europako zenbait programatan parte har dezan gonbidatu ohi dute; musika mistoari buruzko Integra (2006-2011) eta Re:New Music (2009-2011) programetan, esate baterako.

Bere diskografian hogeitabazko grabazio inguru daude, eta horiek denek zehaztasunez erakusten dute taldearen erreperitorio zabala: Reynolds, Bertrand, Blondeau, D'Adamo, Fineberg, Grisey, Hervé, Hurel, Leroux, Matalon, Monnet, Murail, Schneller, Buchala, Jodlowski... Academie Charles Crosaren Gogokotzat hartuta askotan, CD horiek sari ugari erdietsi dituzte (*Le Monde de la musique*, Diapason d'Or, 10 de Répertoire).

Ensemble Court-Circuit taldeak Île-de-Franceko Kultura Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritzaren laguntza du, «Compagnies et ensembles à rayonnement national et international» izeneko programaren

barruan (CERNI). Île-de-France eskualdeak finantzatzen du haren jarduera, «Permanence artistique et culturelle» (PAC) barruan. Horrez gain, SACEM, SPEDIDAM eta Musique Nouvelle en Liberté elkarteek diru-laguntzak ere jasotzen ditu.

# Hurrengo kontzertuak

---

## **Musika Garaikideko VIII. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa**

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

**2018 | 02 | 20**

### **Trío Salzedo**

Peter Eötvös, Kaija Saariaho, Ivan Fedele, Zuriñe F. Gerenabarrena, Bruno Mantovani eta Joan Magrané-ren lanak

**2018 | 03 | 13**

### **Ensemble de Cadaqués**

#### **Josep Vicent (zuzendaria)**

John Adams, Igor Stravinsky, Joan Albert Amargós eta Mikel Chamizo\*-ren lanak

**2018 | 04 | 10**

### **Trío Zukan**

Félix Ibarrodo, María Eugenia Luc, Isabel Urrutia, Francisco Domínguez eta Magnus Lindberg-en lanak

**2018 | 05 | 15**

### **Ensemble PHACE**

#### **Nacho de Paz (zuzendaria)**

*Paris qui dort*, René Clair-en filma. Yan Maresz-en musika

\* BBVA Fundazioaren enkargua

